

• Txirrindularitza

Miguel Indurain Saria:

ONCEko ziklistak izango dira gaur faborito Lizarrako proban, eta Armstrong ere izango da karreran → **35**



• Krosa

Euskal Herriko Txapelketa:

Maiatzaren 21ean hasiko da kros herrikoien lehiaketa, EUSKALDUNON EGUNKARIAK antolatua → **40**

Reala ♦ Javier Clementek uste du neurketaren gakoa jokoaren erantzukizuna hartzean egon litekeela

Irabazi beharra

Bai Realak, bai Real Madrilek ere garaipena behar dute gaur

Jon Balenziaga / Donostia

ETXETIK kanpo eskuratzen ez dituen puntuak, etxean eskuratu beharra ditu Realak. Zentzu horretan, gaur, irabaztera derrigortuta dago berriz ere jaitsierako postuetan ez sartzeko. Parean duen taldeak ere, ordea, garaipena behar du. Gainontzean, agur esango dio Liga irabazteko aukerei.

Javier Clementek De Pedronen hutsunea Aranzabal edo De Paularekin beteko du. Seguruenik, Aranzabal jarriko du zelai erdian eta ezker hegalean, aldiz, Lopez Rekarte. Hori izango da aurreko asterekin alderatuz hasiera-

ko hamaikakoa-ari dagokionean egingo duen aldaketa bakarra eta berau, derrigorrezkoa da, De Pedrok txartelen ondorioz ezingo baitu jokatu gaur gauean.

JAVIER CLEMENTE

■ ■ ■ «Partidu honek daukan tradizioari, puntuen beharra gehitu behar zaio»

Clemente: «Biontzat da garrantzitsua»

Javier Clementerentzat gaurko neurketa bi taldeentzat da garrantzitsua. Hala esan zuen atzo emandako prentsaurrekoan. «Real Madrilek goian jarraitzeko behar ditu puntuak, guk, aldiz, behetik irteteko. Bi taldeentzat da oso partidu garrantzitsua. Real Madrilen aurka jokatzeko beti da berezia hemen. Partiduak duen tradizioari, puntuen beharra gehitu behar zaio». Neurketaren gakoa, jokoaren erantzukizuna hartzean egon litekeela uste du. «Real Madrili ez zaio jokatzeko utzi behar. Kalitate handiko jokalariek dituzte eta jokatzeko utziz gero, ez guri bakarrik,

Espainiako Lehen Mailako 31. jardunaldia			
REALA 		REAL MADRID 	
Entrenatzailea Javier Clemente		Entrenatzailea Vicente del Bosque	
Aulkian 25 Alvarez 6 Pikabea 24 Jauregi 4 Gomez 18 Idiakez 16 Aldeondo 21 De Paula		Aulkian 13 Bizarri 22 Karembeu 17 Dorado 15 Helguera 21 Geremi 31 Meca 34 Aganzo	
Etxean Irabazi 8 Berdindu 4 Galdut 3 Golak alde 21 Golak kontra 15		Kanpoan Irabazi 4 Berdindu 9 Galdut 2 Golak alde 21 Golak kontra 20	
Orokorrean Postua 16 Puntuak 35 (+6)		Orokorrean Postua 4 Puntuak 49 (+8)	
Azken emaitzak 93-94 2-0 94-95 1-1 95-96 1-1 96-97 1-2 97-98 4-2 98-99 3-2			



GARI GARAIALDE

Balic eta Savioekin iritsi zen Real Madril. Balicek zazpi hilabete egin ditu min hartuta eta eta Savio pare bat, baina biak osatu dira eta gaur itzuliko dira seguruenik hamaikakora. Deialdian behintzat badira. Atzo iritsi zen Real Madril Donostiara. Taldeak Hierro, Sanchis, Illgner, Julio Cesar eta Morientes min hartuta ditu. Argazkian, Michel Salgado autografoa sinatzen.

edozein talderi irabazteko gai dira. Atzealdean asko estutu beharko dugu, markatzailek erne aritu beharko dute; aldiz, baloia dugunean, lotsagabe jokatu behar dugu». Real Madrili buruz

mintzatzean, batik bat, erasoko jokalariek goraipatu zituen. «Banan-banan, Raul, Savio, Guti eta baita McManaman ere, nahiz eta azken hau oraindik sasoia hartzen ari den, laurak dira jokalar

erabakiorrak. Roberto Carlosen igoerak ere kontuan hartu behar dira. Atzealdean, badakit Campo eta Karanaka zenbait arazo izan dituztela, baina oso onak dira».

Del Bosquek ez du uste

Jauregi osatu ondoren, deialdian

■ IGOR JAUREGIK hamar hilabete luze eman ditu pubiseko arazoak direla eta jokatu gabe. Azken partidua, 1999ko maiatzaren 2an jokatu zuen Extremaduraren aurka. Denboraldi honetan, minutu bat bera ere ez du jokatu, baina atzo, Javier Clementek deialdian sartu zuen, osatu denaren seinale. Entrenatzaileak, Jauregi lan handia egiten ari dela aipatu zuen atzo eta egunero horren gogor saiatzearen ondorioz, zerrandan sartzea erabaki duela: «Oso pozik nago duen jarrerarekin» esan zuen. Igor Jauregi ere, gustura azaldu zen Anoetako aldageletan. «Printzipioz, lehen helburua deialdian sartzea zen eta orain ikusi beharko duguna da jokatzeko dudana. Osasunaren aurka uste baino hobe amaitu nuen eta horregatik nago hemen. Madrilen aurka berregertzea polita litzateke, kontuan izanik, hiru puntuak behar ditugula».

Realaren aurka galdut gero Ligari agur esango diotenik. Realetik, Jankauskas eta Khokhlov azpimarratu zituen atzo, azken honi buruz, 17 urte zituenetik jarraitzen duela esan zuen. Del Bosquerentzat, Clementek sen berezia du entrenatzeko eta haren hitzak, naturalki, datozen bezala hartu behar direla uste du. Atzealdean izaten ari den arazoei, ez zien garrantzia askorik eman nahi izan Real Madrileko entrenatzaileak.